



Hamar urte hauetan taldean aritu diren guraso, partaide eta begirale batzuk. ARGAZKIA: JAVI COLMENERO

Alde Zaharreko Xirimiri aisialdi taldeak hamar urte bete ditu aurten. Larunbatean elkartearen parte hartu dutenak biltzeko jaia egin zuten. TESTUA Aitor Jordana

Hamar urteko euri tanta

ALDE Zaharreko gazteei aisialdi arloan alternatiba emateko sortu zen Xirimiri taldea duela hamar urte. San Vicente parrokiako haurrek katekesia bukatu eta sendotza hartu bitarteko hutsune hura betetzeko jaio zen. 1998ko udaran hasi zituen ekintzak eta udazken partean DBHko ikasleen artean deialdia egin zuten taldeko arduradunek. Juan Kruz Mendizabal da taldea sortu zutenetako bat. “Baliabide eskasak genituen orduan. Ordea, nora joan nahi genuen argi geneukan eta duela hamar urte landu genituen baloreetan sinesten dugu gaur egun”.

Astialdi talde bat baino, heziketa proiektu bat da Xirimiri, arduradunen esanetan. Kristautasuna oinarritzat hartuta, denetariko gazteei dute taldean parte hartzeko aukera. “Lana Elizbarrutiaren baitan egitea *handicap* bat da. Balore batzuk ditu-

gu. Hala ere, ez dugu ikuspegi hori inposatu nahi ez eta inor behartu ere”, esan du Mendizabalek. Borja Ruiz da orain Xirimiri taldeko arduraduna. “12 eta 18 bitarteko gazteak hartzen ditu elkarteak. Prozesu guztia bukatu ondoren sendotza hartzeko aukera ematen diegu gazteei. Ez da ezinbestekoa. Nahi duenak hartuko du eta nahi ez duenak, ez”, esan du. “Guk ez diogu gure izateari uko egingo, baina jendea aske da hari jarraitzeko”, gehitu du.

Bere helburuak lortzeko hainbat ekitaldi antolatzen ditu Xirimirik. “Hauek urteetan zehar zabaldu dira.

Txikitatik hartzen dituzte partaideak ardurak eta 18 urte betetzean begirale izateko aukera dute

Hasiera bateko Aste Santuko *mini ruta* eta udalekuak mantendu ditugu. Baita gazteekin ostiraletan egiten ditugun bilerak ere”, aipatu du Nerea Huegun begiraleak. Dena den, hitzaldiak, ludoteka eta txapelketak antolatu dituzte.

Etorkizuna garbi ikusten dute taldeko kideek. Hamasei urteko gazteak begiraleen laguntzaile lanetan aritzen dira eta 18 urte betetzera koan begirale bihurtzeko aukera ematen zaie. “Udalekuetan, txikitatik ardurak jartzen zaizkie”, esan du Ruizek. “Gaur egun oso zaila da boluntarioak aurkitzea. Aisialdi taldeak bigarren mailako hezkuntza emango balute bezala tratatzen ditu gizarteak”, aipatu du Mendizabalek. Taldean parte hartzen duten gazte eta gurasoak pozik agertu dira Xirimirik egin duen lanarekin. “Hazten zaren neurrian, ikasteko aukera ematen dizu”, adierazi du Fermin Mendazona partaideak.



1999. urtean Beran egindako 'mini ruta'. ARGAZKIA: UTZITAKOIA



2001. urtean irteera bateko partaideak. ARGAZKIA: UTZITAKOIA



Lau gazte, 2004. urtean Deban. ARGAZKIA: UTZITAKOIA